

Dutea hartzen traktore-palan

Anabella jostailu katalogo batean bizi zen. Orrialde arrosetan. Panpina guziak bezala, funtsean. Bilo hori ederrak zituen eta ile-apaintzeko puska andana bat. Kozinakan, jostailuzko kikaretan dutea hartzen edo saltzaileka jostatzen zen bere panpina lagunekin.

Uros zen,... pala-mekanika baten gidatzea edo basa-oihanean roboten gibeletik ihizian aritzea amesten baldin-bazuen ere,... noiztenka, sekretuan.

Haatik, ez zien sekulan holakorik aipatzen beste panpinei, hartaz trufatuko zirela beldur baitzen.

Orrialde arrosetan haur-karrozak baziren bai, metaka!

Baina buldozerik ez...



Jim Handi traktore-pala-gidari-abenturazale handi bat zen, katalogo berean. Orrialde urdinetan, mutikoen orrialdeetan. Basa-oihanean, robot gaiztoen gibeletik ihizian aritzea biziki maite zuen baita ere obretan aritzea bere adiskide traktore-pala-gidari-abenturazaleekin.

Uros zen,... kikara politekin edo kolore-anitzeko bixkotx zatiekin kozinakan jostatzea amesten baldin bazuen ere,... noiztenka, sekretuan.

Haatik, ez zien sekula holakorik salatzen bere lagunei, hartaz trufatuko baitziren, alabaina!

Orrialde urdinetan, pistolak baziren bai, metaka!

Baina ez zen dute-ontzi kikarakik...

Egun batez, neska ttipi batek katalogo hori urratu zuen. Amak hala hola konpondu zuen eskotx mutur batekin. Jim Handiren eta Anabellaren orrialdeak bat bestearen ondoan kolatu zituen ohartu gabe.

Hastapenean Anabella eta Jim Handi gordeka elkarri so egon ziren, jenaturik. Anabellak traktore-pala ikusi zuen, zoragarria atzeman zuen baina ez zuen fitsik erran, ez zen menturatzan.

Jim Handiri ere, "zein politak dute-ontzi kikarak!" kasik ahotik eskapatu zitzaion jostetako ontzi-zerbitzua ikusi zuelarik.

Ondoren, Anabellak hitza hartu zuen:

-Normalki, toki honetan, Nerea eta Amaia dira, "Ez dugu salda maite" erraten duten bikiak. Zer ari zara hor, zu, orain?

-Ez dakit, ihardetsi zuen Jim Handik, ene lagunekin nintzen eta... tapla! Hara non hemen gertatzen naizen!

-Eta zertan jostatzen zinen zure lagunekin? Galdegin zuen Anabellak.

-O, mutiko jokoetan! Robota ihizian eta halako zeretan...

-Uau! piztu zen Anabella. Bikain! Arras gustuko nuke joko horretan aritzea! Artetik errateko, ni Anabella naiz eta zu?

Jim Handik inguruetara so egin zuen, mutiko bihirik ez inguruko hamar orrialdeetan. Nehor ez trufatzeko. Are jo! Bere kuraia hartuz, fite bota zuen:

-Jim Handi deitzen naiz! Eta ene traktore-palara dutea hartzera gomitatzen bazintut?

-O, bai! oihi egin zuen Anabellak, putinka, ezinegonez. Nahi zenuke ene kozina-jokoa ekar dezadan?

-Bon...e...erran zuen Jim Handik, gutiziaz errabiaturik,...bai, plazer egiten badizu...Cookies-ak egin ditzakegu!

Hastapenean, jenatuak ziren. Ez ziren menturatzen, poxi bat kozinakan eta poxi bat traktore-palan jostatzen ziren, herabeki. Baina franko ontsa jostatzen zirela ohartu zirelarik, gero eta hobekiago laxatu ziren. Egiazki ontsa goxo zen horrela jolastea, pentsaketa egon gabe, irri-egingarri izateaz beldur izan gabe. Zoraturik, itsuski libertitzen ziren.



Berria beste orrialdeetara hedatu zen... Panpinak ziren lehenik hurbildu, ikustera. Biharamunean, jostatzera etorri ziren. Eta berdin ondoko egunetan.

Ondoren, abenturazale zenbait, bi zaldun eta futbolari bat sudur-punta agertzera ausartu ziren. Ez ziren gehiago ahalke neska ala mutiko jokoetan aritzeaz, nehor ez baitzen nehozez trufatzen.

Jostatzen ziren, besterik ez.

O, bistan dena, panpina aspergarri zenbait izan ziren, hala-nola haien ile-apainketa puskak prestatu nahi ez zutenak. Mutikoek dena hautsiko zutela erraten zuten. Baina Jim Handik ereduak erakutsi zien biziki kasu emanez eta konfiantza egiten ahal ziotela ohartu ziren.

Bill, "Xitxuketari-Gihartsua" aldiz, panpinek min hartzeaz beldur zen bere marteilu-pneumatikoarekin jostatzean. "Mutiko koskorrentzat egina da, hori!" erraten zuen. "Ez gara azukrezkoak" murrikan trufatzen ziren panpinak. Eta egia da, arras ongi moldatzen zirela. Billek, anaia handi gerizatzailearena egiteari utzi behar izan zion.



Geroztik, orrialde guzietan, neska ala mutikoen jokoak izan, denak elkarrekin jostatzen ziren. Hainbestearino non, orrialde urdinak eta arrosak nahasi baitziren.

Eta?...Hara non, ttanko, orrialde ubelak bilakatzen diren!

Egun horretarik landa, jostailuen katalogoetan ez da gehiago mutikoen ala nesken orrialderik. Orrialde ubelak baizik ez dira, haur guzientzako jokoekin.

Anabella eta Jim Handiri dagokienez, ontsa so egin ezazue zuen katalogoetan Eguberri garaian: besoz beso ikusiko dituzue.

Orrialde ubeletako bi amorosak dira.



Christosen istorioa, Mélanie Grandgirardek ilustratua, "*Dînette dans le tractopelle*"- Talents hauts, 2009 (*Ikasek euskaratua eta doi-doi moldatua*)

Gure lehen irudipenak

- a- Istorio horrek harriarazten zaitu? Irri eginarazten? Gogoetak eginarazten? Zergatik?
- b- Istorio horren ahozko laburpena egin ezazu.

Hiztegia kozinakan aritzea: dinetan jostatzea dute kikara: tearen edateko ontzia	ile-apaintzeko puskak
	
	traktore-pala 
dute zerbitzua	

Ulertzea

- a- Nor zen Anabella? Nor zen Jim Handi?
 - b- Non eta norekin bizi zen bakoitza?
 - c- Anabella eta Jim Handi uros ziren bakoitza beren orrialdetan. Baina amets sekretu bat bazuten, zer zen?
 - d- Zergatik zen amets hori sekretua?
 - e- Zein da istorio horren memento garrantzitsuena? Noiz da dena aldatzen? Zure erantzuna justifika ezazu.
 - f- Zergatik panpina batzuek ez zituzten haien ile-apaintzeko puskak mutikoei prestatu nahi?
 - g- Bill-Xitxuketari-Gihartsuak zergatik ez zien panpinei prestatu nahi bere marteilu-pneumatikoa?
- f- Zer da istorio horren morala edo irakaspena?

Eztabaida batean parte hartzea

- a- Behar ote dira nesken eta mutikoen jostailuak bereizi?
- b- Ba ote da emazte lanbiderik eta gizon lanbiderik?
- c- *"Nire aita etxekoandrea da, eta zer?", "Norak suhiltzaile izan nahi du", "Marimutil bat naiz, eta zer?",...liburu horiek irakurri ote dituzu? Zer da istorio horien irakaspena?*

Erratea

- a- Anabella eta Jim Handiren arteko elkarriketa ozenki irakur ezazue binaka, antzeztuz.

Idaztea

- a- Panpinazaleen eta abenturazaleen arteko elkarriketa bat asma ezazu eta idatz 5/6 lerrotan.
- b- Beste bukaera bat asma ezazu eta idatz 5/6 lerrotan.
- c- Istorio honen segida bat asma ezazu 5/6 lerrotan.